



Enpresa Jarduerak Berriak Abiarazteko Laguntzak Ekintzailetzako Tokiko Proiektuen Esparruan

Diruz lagun daitekeen jarduera:

- Edozein jarduera-adarretan eta arduraldi eskusiboko erregimenean proiektua enpresa edo enpresa abian jartzeko beharrezko den laguntza eta tutoretza
- Kapitulu honen babespean diru-laguntza jaso ahal izango da negozio-idea bat aztertu eta garatzeko,
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen laguntza hauetako pertsona onuradunen tutorizaziorako, selekziorako eta/edo akonpainamendurako Egaz Txorierri Lanbide-ren erakunde laguntzailea dela eta, akonpainamendua eta aholkularitza EGAZ Txorierri eskainiko du.

Diru-laguntza kopurua:

- EGAZ Txorierri **gehienez ere 26 laguntza emango ditu** garapenerako.
 - **6 laguntza 18 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako pertsonentzat.**
 - **20 laguntza 30 urte edo gehiago dituztenentzat.**
- **Nolanahi ere, proiektuak aurreikusi behar du emakume ekintzaileen % 40.**
- EGAZ Txorierri 15 egun balioduneko epea edukiko du, ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita, laguntzak eskuratzen dituzten pertsona ekintzaileei laguntzeko eta/edo tutoretza emateko jarduketeki ekiteko.
- Edonola ere, Egaz Txorierriren webgunean (www.txorierri.eu) jakinaraziko da laguntzen behin betiko kopurua eta zenbatekoa, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen denean.



Prestazio ekonomikoa:

- **Sustatzaileei enpresa-idea garatzeko eman beharreko laguntza, 1.500 eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko.**
- **Zenbateko horrek % 15eko igoera izango du, baldin eta eskabidea aurkezteko unean sustatzai-lea 18 urtetik gorakoa eta 25etik beherakoa bada. Horrez gain, beste % 15eko igoera izango du baldin eta sustatzailea emakumezkoa bada.**

Beste laguntza batzuk jasotzea:

Aurreikusitako laguntzak ez dira bateragarriak izango beste edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk autoenplegua sustatzeko emandako edozein motatako diru-laguntza edo laguntzarekin

Onuradunak:

Kapitulu honetan aurreikusitako laguntzen onuradun izan ahalko dira eskabidea aurkezteko unean eskakizun hauek betetzen dituzten ekintzaileak.

- EAEn erroldatuta egotea eta benetako egoitza bertan izatea.
- Langabe izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ez eta Langile Autonomoen Araubide Berezian aurreko urtean alta emanda ez izatea.
- Edozein jarduera-adarretako enpresa- edo negozio-proiektu bat garatzeko ideia bat izatea.
- Deialdi honen 3. artikuluan aurreikusitako erakundeetako bateko aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesuan sartuta egotea.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak pertsona ekintzaileei laguntza emateko kudeatutako aurreko deialdietako laguntzen onuradun ez izana.



Onuradunak izateko konpromisoa:

Laguntza horien onuradunak izateko, hauxe egiteko konpromisoa hartu behar dute susta-tzaileek:

- Arduraldi eskusiboan aritzea enpresa edo negozioa abian jartzeko jardunean.
- Deialdi honen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek enpresa edo negozioa ezartzeko zehaztutako aholkularitzako eta laguntzako jarduera guztietara joatea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea, gehienez 3 hilabeteko epean, negozioa abian jartzeko diruz lagundutako tutoretza eta laguntzako prozesua amaitzen denetik zenbatzen hasita.
- Helburu bererako beste laguntzarik ez jasotzea.

Epe horretan ekintzaileek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematen ez badute, diru-laguntzaren bigarren ordainketa jasotzeko eskubidea galduko dute.

Laguntzak emateko prozesua :

- Eskabidea egiteko epea amaitzen denean, EGZ Txorierri aztertu egingo du aurkezturiko dokumentazioa, eta bazter utziko ditu deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak.
- EGZ Txorierri atzera botako ditu eskaerak, laguntza-kopurua eta/edo dagokion partidako kreditua amaitzen denean.

Laguntzak eskatzeko epea eta lekua :

Oinarri hauek argitaratzen direnetik 2019ko martxoaren 4ko 13:30era arte aurkez daitezke laguntzen eskaerak eta eskatutako dokumentazioa, hemen:

EGAZ Txorierri (Behargintza Txorierri, SL)

Txorierri etorbidea 46, 13 A



Sondika

Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.

Aurkeztu behar diren agiriak:

- Eskaera-orria (I. eranskina).
- NANaren fotokopia.
- EAEko errolda-agiria (udaletxean eskatzen da).
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman ez dela egiaztatzen duen agiria (Ogasunean eskatzen da).
- Lan-bizitzaren txosten eguneratua; hemen eskura daiteke: [www.seg.social.es/sede electrónica / ciudadanos/ servicios via sms/ vida laboral/ acceso al servicio](http://www.seg.social.es/sede-electronica/ciudadanos/servicios-via-sms/vida-laboral/acceso-al-servicio)).
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egon den aldietako ziurtagiria (Lanbideren bulegoetan eskatzen da).
- Enpresaren Bideragarritasun Plana

Diru-laguntza ordaintzeko modua:

EGAZ Txorierri ordainduko ditu laguntzak, honela:

- Lehen ordainketa, emandako diru-laguntzaren % 50ekoa, laguntza eman ondoren gauzatuko da, 2018ko aurrekontuko ordainketa-kredituaren kontura, bideragarritasun-plana osatu ondoren eta enpresa-proiektua ezartzeko aholkularitza-prozesua hasi ondoren.
- Bigarren ordainketa, gainerako % 50,1ekoa, 2019ko ekitaldiko konpromiso-kredituaren kontura, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman ondoren. Ordainketa egin aurretik, ekintzaileak erakunde laguntzaileari aurkeztu behar dio Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan emandako altaren kopia eta amaierako memoria, egindako jardueren xehetasunak adierazita. Horretarako hiru hilabeteko epea du, laguntzeko prozesua amaitutako egunetik zenbatzen hasita.



I.Eranskina: Eskaera Orria

TOKIKO PROIEKTU EKINTZAILEEN ESPARRUAN ENPRESA JARDUERAK BERRIKA ABIARAZTEKO LAGUNTZEN DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKAERA (LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN DEIALDIA)

.....jaunak/andreakNAN zenbakiaduenak, bere izenean eta honako helbide eta telefono-zenbaki hauek dituenak
PK:.....udalerrria.....telefono-zenbakia.....

Eskanideari gehitu beharreko dokumentuen zerrenda : (X batez adierazi dagokiona)

NANaren fotokopia.

EAEko errolda-agiria (udaletxean eskatzen da).

Lan-bizitzaren txosten eguneratua; hemen eskura daiteke: www.seg.social.es/sede electrónica / ciudadanos/ servicios via sms/ vida laboral/ acceso al servicio).

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egon den aldietako ziurtagiria (Lanbideren bulegoetan eskatzen da).

Enpresaren Bideragarritasun Plana.

Eskatzaileak eskabidea egiten duenean bete beharreko baldintzak:

(X batez adierazi dagokiona). Baldintza hauek eskaeran eta aholkularitza-prozesu osoan onartu behar dira:

EAEEn bizitzea eta bertan erroldatuta egotea.

Langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea.

Lanbidek baimendutako erakunde laguntzaile baten aholkularitza eta laguntza jasotzeko prozesu batean sartuta egotea.

Enpresa edo negozio berri bat ezartzeko bideragarritasun-plan bat izatea.(II Eraskina)



Aurreko ekitaldietan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatutako eta ekintzaileei laguntzeko deialdietan jasota dauden laguntzen onuradun ez izatea jarduera berri bat abian jartzeko.

Eskatzaileak bere gain hartzen dituen konpromisoak:

(X batez adierazi dagokiona). Konpromiso hauek eskaeran eta aholkularitza-prozesu osoan onartu behar dira:

Bere jarduera bakarra enpresa enpresa-idea garatzea eta egituratzea izatea.

Egaz Txorierri enpresa edo negozioa ezartzeko antolatzen dituzten aholkularitza- edo laguntza-ekintza guztietan parte hartzea.

Beste administrazio batzuetatik edo erakunde publiko zein pribatuetatik eskabide hau egin eta gero lortutako diru-laguntzen berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, baita diruz lagundutako jardueren helburuari edo izaerari funtsean eragiten dion beste edozein egoeraren berri ere.

Egindako jarduerak zehazten dituen azken memoria bat aurkeztea erakunde laguntzaileari, laguntza-prozesua amaitu ondoren eta deialdian ezarritako epean. EGAG Txorierri baliozkotzat jo beharko du memoria hori, eta memoriaren edukiak lan-plangintzaren eta lortutako emaitzen jarraipena egitea ahalbidetu beharko du.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea, gehienez ere hiru hilabeteko epean, negozioa abian jartzeko tutoretza- eta laguntza-prozesua bukatzen denetik hasita.

Epe horretan ekintzaileek Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematen ez badute, diru-laguntzaren bigarren ordainketa jasotzeko eskubidea galduko dute

.....-n, 2019korenan

Sinatuta:

EGAG Txorierri, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Ekonomi Garapenerako Zerbitzua, honako hau jakinarazten dizu: Datuak Babesteko Legean agindutakoa betetzeko: Agiri honetako datu pertsonalak honen zerbitzuko fitxategi automatizatuetan gordetzeko direla. Nahi izanez gero, datuak ezagutzeko, zuzentzeko eta deuseztatzeko eskubidea erabil dezakezu, EGAG Txorierri, Mankomunitateko Ekonomi Garapenerako Zerbitzuruaren arduradunari eskutitza helaraziz. Datu hauek erabiltzeko baimena ematen diot, EGAG Txorierri, beti bere egitekoak diren jardueretarako izanez gero



II Eraskina: Bidegarritasun-Plan Modeloa

OHARRA:

Bidegarritasun- plan honen xedea da hausnartzen laguntzea zure etorkizuneko enpresa biarazteko landu behar dituzun alderdi giltzarrien inguruan. Argi dituzun ataletan, erantzun ahalik eta xehetasun handienaz, osatzen eta zure ideia errealitate bihurtzen lagunduko dizugu. Ez zaude bakarrik EGAZ Txorierri bidelagun duzu zure enpresa sortzeko.

0. Proiektuaren edo enpresaren izena

1. Ideia eta talde sustatzailea

- Azaldu nola sortu zen ideia eta zergatik sortu nahi duzun enpresa.
- Azaldu nor den ideiarekin sustatzailea edo sustatzaileak, zein diren zuen CVak, eta eskarmenturik ote duzun jardueran eta/edo enpresa-kudeaketan.

2. Enpresaren jarduera

- Deskribatu labur gauzatuko duzun jarduera: zer saldu/ekoizti nahi den, zein beharrezko erantzuten dion, zein abantaila dituen gainerakoekin alderatuta...
- Deskribatu produktua ekoizteko edo zerbitzua emateko faseak, erabilitako teknikak, behar diren tresnak eta makineria, produktua/zerbitzua egiteko lehengaiak (prezioa, kantitatea...), faseren bat beste enpresaren batekin azpikontrata ote daitekeen...
- Adierazi non egongo den enpresa, eta zergatik; lokala beharko duzun, lokala ote duzun, eta obra edo baimen berezirik behar duen.
- Azkenik, adierazi noiz aurreikusten duzun jarduera abiaraztea.

3. Merkatuaren analisia

3.1. Jardueraren sektorea

- Deskribatu kide izango zaren eta lehiatuko zaren jarduera-sektorearen ezaugarriak.

3.2. Bezeroak

- Deskribatu zein bezero-motarekin lan egingo duzun (kontsumitzaileak zuzenean, enpresak, administrazioak.... Adierazi, adibidez: enpresaren tamaina, zein esparru geografikotan jardungo duzun, sexua, adina, baliabideak, gustuak...).

3.3. Lehiakideak

- Deskribatu zure lehiakideak: nor diren, non dauden, nola egiten duten lan, zein zerbitzu/produktu eskaintzen dituzten, zein ahulgune eta indargune dituzten, zein prezioaren truke saltzen duten, zein tamaina duten...

4. Marketin-mixa

4.1. Produktu- eta prezio-politika

- Deskribatu xehetasun handiz zure enpresaren jarduera-ildoak eta eskaini/salduko diren produktu/zerbitzuak.



- Adierazi zein prezio pentsatu duzun zuren produktu/zerbitzuetarako, alderatu lehiakideen prezioekin, eta azaldu nola zehaztu dituzun prezioak.
- Enpresa hornitzaileak behar badituzu salduko dituzun produktuak hornitzeko, adierazi horien inguruko informazioa: izena, prezioak, emateko epeak, itzultzeak, biltegiatzea...

4.2. Komunikazio-politika

- Enpresaren izena eta logotipoa pentsatu badituzu, azaldu itzazu eta eman xehetasunak.
- Azaldu zein bitarteko erabiliko dituzun zure negozioa sustatzeko (txartelak, web orria, ibilgailuak errotulatzeko, gizarte-sareak, aldizkariak. Páginas Amarillas...), eta noiz erabiliko dituzun.

4.3. Banaketa-politika

- Pentsatu duzu nola heldu zure bezeroengana?. Sakon azaldu zein den zure banaketa-bidea (salmenta zuzena, handizkako salmenta, on-line salmenta, banatzaileak, handizkariak...).

5. Antolaketa eta giza baliabideak

Enpresa antolatzeko unea da:

- Bazkideei dagokienez: azaldu nork emango duen alta autonomo gisa, eta zein den proiektuan izango duten inplikazio-maila.
- Langileak behar izateari dagokionez: adierazi langileak kontratatzea aurreikusten al duzun (noiz, zereginak, soldata, kontratu-mota...).
- Azkenik, eman xehetasunak enpresaren oinarritzko lan-arloei buruz: nor izango den arlo bakoitzaren arduraduna, zein zeregin/erantzukizun izango dituzten, soldatak, ordutegiak...

6. Legeztatzea

- Azaldu zein forma juridiko hautatu duzun enpresarako, eta zergatik aukeratu duzun.
- Horien berri baldin baduzu, zehaztu enpresa sortu eta jarduera abiarazteko egin behar diren urratsak.
- Adierazi jarduerari zuzenean aplikatu beharreko araudirik ba ote dagoen.

7. Analisi ekonomiko-finantzarioa

7.1. Egin beharreko inbertsioak

- Ziurrenik, zenbait inbertsio egin beharko dituzu jarduera abiarazteko. Jarraian, xehetasunez adierazi zein inbertsio aurreikusten dituzun jarduera abiarazteko, eta baldin badakizu, aipatu kostua:
 - Lokala erostea, makineria eta tresneria, garraio-ekipoak, altzariak, ekipo informatikoak, aplikazio informatikoak...
 - Hasieran ezartzeko gastuak: markak eta merkataritza-izenak erregistratzea, irekitzeko lizentziak, web orriaren ostalua, publizitatea jarduera hasi aurretik, egokitze obra, obra-proiektua, arkitektoen gastuak, erregistroak, fidantzak lokala alokatzeagatik...
 - Lehengaiak erostea, saltzeko lehen produktu-sorta erostea...
 - Eraketa-gastuak: notariotza, erregistroak, irekitzeko tasak...

7.2. Gastuen aurreikuspena



- Jarduera oro abiarazten denean, zenbait gastu egin behar dira nahitaez. Hala, adierazi jarraian zein gastu aurreikusten dituzun hilean jarduera garatzeko, eta baldinbadakizu, kostua bai:
 - Alokairua, aholkularitza, argindarra, ura, telefonoa, aseguruak, alarmak, zergak, soldatak, gizarte-aseguruak, publizitatea, konponketak eta mantentze-lanak, garraioa, dietak, bulego-materiala, kreditua irekitzeko gastuak, amortizazioak, maileguaren hileko kuota (interesak + amortizazioa), royaltyak eta lizentziak, udal-zergak eta -tasak, garbiketa, banku-zerbitzuak...

7.3. Finantzazioa

- Amaitzeko, pentsatu duzu zenbat diru behar duzun zure negozioa abiarazteko?
 - Zenbat jarriko dute bazkideek?
 - Zenbat eskatu behar diezu finantza-erakundeei?
 - Hornitzaileen finantzazioa izango duzu? Zein baldintzatan?
 - Laguntzak eta diru-laguntzak jasotzeko eskubidea duzu enpresa sortzeagatik?